

AUSARTI

JONE IDIAZABAL

Duela bi urte, lagun baten bitartez, irrati batean neska euskaldun bat behar zutela esan zidaten, beste batekin irratia egiteko. Berehala burua martxan jarri nuen ea nere lagun edo ezagunen artean zein izango litzatekeen egokia pentsatzen. Hura harridura neri eskeintzen zidala esan zidanean. Irratia ezagutzen nuela egia da, baina elkarrizketatu bezala. Ereintza elkarteak prestatutako eginkizun ezberdinetan lan hori nik egiten nuen, besteek, beste batzuek egiten zituzten bitartean. Baina, ni neu irratiaren lanean, gauza ezberdina zen. Ze paper egingo ote nuen nik horrelako lan batean?

Gaur, bi urte beranduago, zera esango dizuet: pertsona arrunt batek, denborarekin eta esperientziarekin lan bat jarraitasun batekin egiten badu dena lortzen du, denetara ohitzen da. Argiago esanda, pertsona gehienek gauza gehienetarako balio dute, arrokerianik gabe. Nik uste dut benetan gai garena, ikasteko eta praktikatzeko aukera izanez gero, noski. Agian, horretarako, zortea ere eduki behar da, zure aurrean atea zabalik aurkitu. Baina poto egitearen beldur hori baztertzeko indarra nonbaitetik atera eta lan ezezagunetan sartzeko ausartasuna ere beharrezkoa da. Ziria sartzen ibiltzen den horietako lagun batek (ziria esanahi onenean), lan eginarazten ibiltzen den horietako pertsona horrek, aspaldi samar, behar bada 6 edo 7 urte bai, ea zergatik ez nuen idazten esan zidan. Ez nion ulertzen, nik idatzi!!

Eta begira zertan ari naizen. Noski, gizarajoa ni, edonork esan diezadake hau ez dela idaztea, ausarkeria bat baizik.

Tartetxo hau betetzera eraman nauten arrazoiak zeintzuk diren azaltzera noakizue. Aho bete betean, euskara hiltzen bada Euskadi hilko dela esaten dugu. Guztiok berdin pentsatzen dugun gauza bakarretako bat izando da. Horretan gelditzen da dena ordea, esaldi handiak esan baina gure hizkuntza zahar hau gutxi erabili.

Emakume gutxi idazten du gizarte osoan eta aldizkari honetan ere nabari da. Argi dago emakumeok aurrerakada handia egin dugula. Pertsona askok onartzen du emakumeak edozein eginkizunetarako balio duela. Baina oraindik urte asko pasa behar dira emakumea bera gizonezkoekin parekatua izateko. Hori emakumeen lana da. Guk geuk egin behar dugu aurrera pausuz pausuz, beste inor ez da horretan saiatuko. Horrela pentsatuz gero, aukera hau hartu beharra nuen, emakumeen papera pixka bat sendotzen saiatzeko.

Aita pontekoa nuen osaba Bittor, dakizuen bezala, hemengo laguntzaile bat zen. Noski, ez zait burutik pasa ere egin bere hutsunea betetzeko gai naizenik. Poza ematen dit lan honekin, berak utzi zuen lekukoaren zatitxo bat senide artean gelditzen dela pentsatzeak. Badakit osaba Bittorri gustokoa izango zitzaiokeela bere odoleko norbaitek Oarson parte hartzea. Ni, nere aldetik ere pozik izango nintzatekeen nere bitzitza berearen antzekoa suertatuko balitzait: burua argi,

ideiak garbi, nortasuna sendo. Hitzak sobra dira, denek ezagutzen genuen.

Hemen parte hartzeko esan zidanak, irratiaren egiten ditudan elkarrizketen antzekoak egin nitzazkeela zioen.

Entzuten ari natzazue, hau ez da elkarrizketa bat!

Noski, arrazoiak duzue, zergatia azalduko dizuet.

Aldizkari honen garrantzia eta zabaltasunak eragiten duen lan ugaria dela eta, arduradunek lan hau egiteko hamabi egunetako epea eman didate. Egia da, nahi izanez gero denbora lur azpitik atera daiteke.

Saio batzuk egin ditut eta ez zaizkit ondo atera.

Batek hitz eman dit beste urte batean galderei erantzungo diela.

Beste emakume oso ezagun batek, bere buruari farre egingo geniokeela eta atzera egin du. Badaezbadaere egun pare batez egon nintzen berarekin. Bigarren aldia grabadora eta guzti eraman nuen, baina alferrik.

Erderaz esaldi batek badio ba, "A la tercera la vencida". Itxaropen honekin talde batengana jo nuen. Zein izan zen nere sorpresa beste bat aurreratu zitzaidala esan zidatenean.

Nere haserrea ikusi behar zenuten, nora jo, zer egin!

Ez nuen edozein elkarrizketa egin nahi, interesgarria zela ikusi behar nuen. Bururatsen zitzaizkidan beste guztiekin ez nuen halako grinarik eta hori beharrezkoa dela uste dut.

Aitzekia banuen, hain egun gutxitan hiru ate jo eta gauza bat edo bestea dela eta, ez nuela zorterik izan.

la ia erabaki nuen, aurtan behintzat, ezer ez egitea.

Betikoa, errezeroa jo ta kitto.

Sofan eseri, telebista piztu, kopeta ilundu eta siesta txiki bat botatzen bukatu nuen. Esnatu nintzenezan zera esan nion neure buruari: "aurkezpen gisa zerbait egitea pentsatzen zenuen, har ezazu papera eta arkatza eta has zaituz ba horrekin. Agian elkarrizketarik ez lortzea ondo etorri zaizu, bestela batek bestean tokia kendu eta biak erdizka egingo zenituen".

Handia da benetan, animoaren egoerak gauza guztietan duen eragina!

Eta momento honetan, zera esatea bakarrik falta zaidala uste dut: nere atea zabalik dagoela edozein kontseilu onartzeko.

Datorren urtean atal hau modu egokiago batean egiteko asmoz, agur denori.